

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Karmele Sistiaga Artola

*Donostia,
Gipuzkoa
(1927-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Ondarretan jaio zen, Satrustegi jauregiaren lurretako etxe batean; izan ere, aita bertako lorazaina zen. Pasai Donibanekoa zen; ama, berriz, Astigarragakoa, baina Donostian bizi izandakoa. Hamar senidetan zortzigarrena zen Karmele. Antiguako parrokiako eskolan ikasi zuen, Pazita ahizpa andereño zuela. Gerra hasi zen urtean dena aldatu zen: anai-arreba zaharrenak Bilborantz ihesi eta gudari joan ziren, aita bihotzekoak jota hil zen... Ama alarguna geratu zen Donostian, bost seme-alaba txikienekin. Sistiaga janari denda jarri zuten orduan, Easo kalean. Hantxe egin zuen lana Karmelek, eta gero Antiguan jarri zuten enbasatu biltegian ere bai. Merkataritza ere ikasi zuen. Parte Zaharrera ezkondu zen. Oso etxekoa da.

Zintak

DON-122

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-06-09
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

DON-123

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-06-09
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Satrustegi jauregiko etxeak

- **Erref:** DON-122/002
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:00:39. **Bukatu:** 00:03:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Ondarretan, Satrustegi jauregiko etxe batean jaioa. Barraka baserría, errioa. Matia kalea. Txokolatene baserría, Poltsagilene, Sagastiberri.

2. Ondarretako kartzelan fusilamenduak

- **Erref:** DON-122/004
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Ondarretako kartzela etxe parean zuten. Gerra garaiko fusilamenduak, goizaldean. Bederatzi urte zituen. "Infernua" ere izaten zituzten presoak. Jende asko joan zen Bilbo aldera ihesi. Anaia bat Otxandion hil zen, gudari.</p></p>

3. Anaiaren heriotza, gerran

- **Erref:** DON-122/006
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:06:51. **Bukatu:** 00:08:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra. Anaiaren heriotzari buruzkoak. Gorpua Gernikara eraman zuten. Beste bi anaiak Langileen Batailoietan eduki zituzten. Ama bost txikienekin geratu zen Donostian. Hamar senide ziren.</p></p>

Transkripzioa

-Jasotzeko? Bai. Bai zergatikan nola nere ahizpa zaharrena han zeon, eta zeon bere mutil, bere senargaiakin zeon, eta haiek eta beste lehengusu bat, Plazaola, hura zan Comandante del Gobierno Vasco, eta harrekin ekarri zuten gorputza Gernikara. Gero Gernikan izan genitun istillu batzuk, zergatikan nahi genun honea ekarri, eta ez ziguten uzten orduan esan ziguten seguru-seguru jasoko genula baiño abixatuko zutela. Urtero juten zian, eta urte batian ba mutilla zaharrena jun zan, eta atera zituzten, eta

zeudela lurrian, eta orduan jun giñan, lurrian jarri gendun gurutze bat, eta bakizu, Gernikan bai izan genitun, oain danak batian daude.

-Eta bazenekiten nun zeon lurperatuta? Otxandion?

-Bai, bai. Otxandion jaso, eta Gernika ekarri zuten, bai.

-Orduan hil zan burrukatzen zebillela?

-Bai, bai, hogeita bat urtekin, bai. En el frente, en el frente de Otxandiano.

-Eta beste, beste anaiyak han ibili zian?

-Bai han ibili zian baiño haiyek gero bueltan, campo de concentración, bat Badajozera ta bestia Madrida.

-Eta nun harrapatu zituzten, hor Santander inguru hortan? Preso nun erori zian ez dakizu?

-Ba ez dizut esango, ez. Baiño hor inguru hortan, bai.

-Eta gero, denbora asko in zuten, hor?

-Bueno, bai, zaharrena lehentxio atera zan, baiño ez dakit zenbat denbora, urtia bai eh, urtiak.

-Eta zuek geratu ziñeten, ama eta...

-Bost, txikinak, bost txikinak.

-Orduan, hamar senide ziñeten?

-Hamar, bai.

4. Parrokiako eskola; batzokia; pospolinak

- **Erref:** DON-122/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Umetako kontuak. Parrokiako eskolara joaten zen. Mari Paz ahizpa zen maistra, eta gerra aurretik mitinak ematen zituen; jeltzalea zen. Bera pospolina izan zen. Matia kalean zegoen batzokia. Loren Arrillagak erakusten zien dantzan. Mutilek antzerkia ere egiten zuten.</p>

Transkripzioa

-Aita ta amakin bizi giñan ta ondo, ikastola juden giñan... Juden giñan escuela parroquial, eta hantxe bertan genun, nere ahizpa gaiñea zan, andereñua zan nere ahizpa, zaharrena.

-Bai, eh? Nola zun izena zure ahizpak?

-Bai. Mari Paz o Pacita, ez dakit nola... [...] Gaiñea, oso zea da eh, hura zan mitinera, la mitinera, etxeko bai, juden zan bai, mitiñak ematea, bai.

-Ah bai? Eta, ze mitin klase edo zeri buruz?

-Ba gerra aurretik, asike, bai gerra aurretik ba alderdi batekuak, o... bueno, abertzalia zan, asike...

-Orduan nazionalista zan?

-Bai, bai. Oso gaiñea eh, gehiyegi! Esaten niyon nik, bai danen aurrian zerbait esan bihar zun ta, bai bai.

-Eta ze zan, emakume batzakoa, edo? Emakumetakoa zan?

-Bai. Bai, bazan.

-Bai? Hor, batzokiko ta... Eta Poxpoliñetan eta?

-Gu ibilli giñan Poxpoliñetan.

-Eta nun? Nora juden ziñeten?

-Antiguon bertan, Calle Matían. Matia zortzi uste det zala, ez dakit ze, zortzi bai. Han, lehenbiziko bizitzan zan batzokiya eta, han.
-Eta, nork erakusten zizuen dantzan ta?
-Loren Arrillaga, uaintxe urtebete hil dala. Antiguon bizi zan hori ere, Loren.
-Eta, neska-mutillak ibiltzen ziñeten dantzan, ala neskak bakarrik?
-Neskak, neskak. Bai, mutillak zuten bere, Los Luises edo, eliza azpin zeukaten bere tokiya. Guk ez gendun txokorik, gu txikiyak giñan baiño, ikasteko ta hola ba, batzokira juten giñan.
-Eta dantza iten zenuten, ta kantatu ta're bai, ala?
-Kantatu ez naiz goatzen, baiño dantza bai. Poxpoliñak eta gero, jaia zanian ba plazan dantzan baiño holako dantzak eh, zinta dantza ta, sagar dantza ta, gauza hoiak.
-Eta antzerkiya-ta iten zan, han batzokiyan?
-Bihan bai, mutillak bai iten zuten, neskak ez, mutillak.

5. Parrokiako eskolan, ahizpa irakasle

- **Erref:** DON-122/010
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:11:44. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Parrokiako eskola, Matia kalean. Oso maistra zorrotza zen ahizpa. Mutillak aparte. Erdaraz ikasten zuten. Etxean euskaraz hitz egiten zuten, gerra aurretik. Ahizpa Bordelera joan zen ihesi.

6. Dotrina, eskolan eta parrokian

- **Erref:** DON-122/011
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:16:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Dotrina, hasieran euskaraz eskolan eta gero erdaraz parrokian. Apaiza. Jaunartze txikia eta handia. Etxe aurrean jolasten zuten.

7. Hondartzara gutxi; bainujantziak; isunak

- **Erref:** DON-122/012
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:16:01. **Bukatu:** 00:19:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Oso gutxi joaten ziren hondartzara, amarekin. Goizean bainatu eta etxera. Idiekin tiratutako aldagarik ez zuen ezagutu. Bainujantziak nolakoak ziren. Albornoa erabili beharra. Isunak. Bainulariekin ez da gogoratzen. Udatiararak.

8. Gerra hasi zeneko kontuak

- **Erref:** DON-122/015
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:23:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra. Hegazkinek bonbak botatzen zituzten. La Sirenara joaten ziren ezkutatzera, korrika. Cervera itsasontzia. Beldurra. Gerra hasi zenean joan ziren anaiak batailoiekin. Eskola itxi zuten. Aitaren eta anaiaren heriotza. Atxilotuak.

9. Heriotzarekin lotutako ohiturak

- **Erref:** DON-122/017
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:26:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Hilkutxa oinez eramaten zuten Antiguako zubiraino, eta handik zaldi-karroan kanposantura. Argia eta trapu beltza. Arrosarioa. Hiru urtean beltzez jantzita. Arropak tindatu.</p>

10. Antiguatik Easo kalera; denda jarri zuten

- **Erref:** DON-122/020
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:35:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Goserik ez zuten pasatu. Telefonoa bazuten etxean. Satrustegi jauregiko jabeekin ez zuten harreman handirik. Atea irekitzen zuten. 13-14 urte

zituenean Easo kalera joan ziren bizitzera. Denda jarri zuten. Errazionamendua. Abastos.

11. Erosleek diru gutxi; merkataritza ikasketak

- **Erref:** DON-122/021
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:37:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Dendan askok ezin zuten erositakoa ordaindu, eta zorrak ezin kendu. Orain dena kexa da. Dendako ordutegia. Merkataritza ikasi zuen.

12. "Servicio social" zer zen

- **Erref:** DON-122/023
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:39:19. **Bukatu:** 00:42:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

"Servicio social" egin behar zuten 35 urtetik beherakoek. Anaia bestaldean zegoen, eta ezin zuten bisitan joan. Futbolaren aitzakian joan ziren behin. "Servicio social" egina izatea zertarako eskatzen zuten. Ez zen derrigorrezkoa, eta ez zuten egin, beraien ideien kontra zihoalako.

13. Gerra osteko lan klandestinoak

- **Erref:** DON-122/027
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:47:19. **Bukatu:** 00:49:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gerra ostean nazionalista batzuek isilpean jarraitu zuten lanean. Klandestinitatea. Meliton Manzanos askotan joan zen beraien etxea miatzera. Mendirako zaletasunik ez du izan.

14. Amari laguntzen eta obeditzen zioten

- **Erref:** DON-122/029
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:50:36. **Bukatu:** 00:52:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Sukaldeko lanetan amari laguntzen zion. Hala konformatzen ziren, ez oraingo neska gazteak bezala. Amak esandako orduan joaten ziren etxera; denek batera iritsi behar zuten, eta anaiaren zain egoten ziren.

15. Gerra osteko giro tristea

- **Erref:** DON-122/032
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:54:28. **Bukatu:** 00:57:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Arrosarioa errezatzen zuten egunero, afalostean. Ur bedeinkatua, erramua... Gerrak dena aldatu zuen: senide zaharrenak askoz alaiago bizi izan ziren beraiek baino. Euskara debekatuta, besoa altxatu beharra...

16. Denda eta biltegia

- **Erref:** DON-122/034
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:58:13. **Bukatu:** 00:59:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Denda zuten Easo kalean, Sistiaga, eta gero okela banatzeko biltegia jarri zuten, Erregezainen kalean, Antiguan.</p>

17. Etxeko ile-apaintzailea

- **Erref:** DON-122/038
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:03:34. **Bukatu:** 01:04:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Pelukeriara ez da ia inoiz joan. Berak jartzen zituen ruloak. Etxeko beste batzuei ere berak mozten zien ilea.

Transkripzioa

- Pelukerira ta juten ziñaten?
- Ni joan naiz pelukerira oain nere ahizpak hasi dianian berak nahi zulako pelukeria, baiño bestela oain ere nik iten det. Eta azkenekua atzo esan nizun ez etortzeko zegatikan atzo ein behar nun. Iten nun bakarrik, baiño jarri zait hemen min bat eta hasten naiz jartzen ta ezin det. Ta hola jarri behar det, burua jetsi eta nere [...] esaten dit: "nik ingo dizut", ta atzo in zian. Baiño ni gutxina juten naiz.
- Eta nola ikasi zenun iten, zure kabuz?
- Nere... Klaro, juten giñan pelukerira ta begiratzen nola jartzen zun. Eta gaztiak giñanian eta Easo kalian bizi giñanian, nere ahizpa guztik, nere koiñata guztik danak etortzen zian jaietan: "ingo diazu illia?", ta neuk moztu ta...
- A bai e? Zuk zure kabuz ikasita e?
- Bai, baiño orduan "konformatzen bazeate..." nik esaten niyoten "nik badakizute ez dakitela, konformatzen bazeate..."
- Baiña ondo ingo zenun, bestela ez ziran jungo.
- Ruloak jarri ta... lasaiago.

18. Modako orrazkerak

- **Erref:** DON-122/040
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 01:04:55. **Bukatu:** 01:05:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orazkerak

Laburpena:

Modako orrazkerak. Permanentea. Kardatuak.

19. Elizara ondo tapatuta

- **Erref:** DON-122/043
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:07:01. **Bukatu:** 01:08:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Elizarako ondo tapatuta. Antiguako elizan gertatu zitzaiona. Jauna emateko paparra tapatu behar izan zuen lagun batek.

20. Umeak etxean jaiotzen ziren

- **Erref:** DON-122/045
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:10:07. **Bukatu:** 01:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Dendako ordutegia, igande goizetan ere irekita. Umeak etxean jaiotzen ziren, medikuarekin eta emaginarekin. Jabier Lasarte. Bataioa. Elizan sartzea.

21. Gai tabuak eta isiltasuna

- **Erref:** DON-122/048
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:14:58. **Bukatu:** 01:16:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Sexuarekin, hilekoarekin eta jaiotzarekin lotutako dena tabua zen, isilpekoa. Eta ez zuten galdetzen. Amak eta apaizek ez zioten sekula esan mutilekin kontuz ibiltzeko, baina mediku batek bai.</p>

Transkripzioa

- Eta adibidez hillekua etortzen zanian eta, ya bazenekiten aurretik zer zan ala...?
- Ez, momentu hartan, momentu hartan, nere etxian ez, gure amak ez zigun...
- Normalian ez zuten...
- Ez zuten ezer esaten!
- Eta zuek galdetzen zenuten ala...?
- Gutxi, galdetu gutxi; bueno, ya galdetu in behar da azkenean, galdetu egin behar da, baiño gehiyegi ez.
- Ez ziñaten ausartzen galdetzen?
- Ez gehiyegi, baiño galdetu in behar zan, zergatikan momentua etorri zanta.
- Eta umiak jaiotzen ziranian eta, zer esaten zuten, ume hori nundik etorri zala, Paristik?
- Ez, ez, ez, nere etxian ez.
- Ze esaten zuten, umia jaio zanian ematen zuten esplikaziyoik ala...?
- Ez, ez, ez esplikaziyoik eman, baiño gurasok han zeuden, iñork ez zun ezer esaten.
- Ez zan esaten eta ez zan galdetzen?
- Ez zan galdetzen.
- Ez zan galdetzen. Eta esaten zizuten gero ba mutillekin kontuz ibiltzeko eta...?
- Bueno, nei mediku batek esan zian hori, askotan goatzen niyon, "neri amak esan dit mutillakin kontu e? mutillakin kontu". Hoi mediku batek.
- Mediku batek? Ta apaizak?
- Eliz-apaizak ez!
- Apaizak ere ez?
- Apaizak ez!
- Eta amak ere ez?
- Baiño mediku batek esan zian, askotan goatzen naiz.

22. Baserritarrekin eta arrain saltzaileekin zuten harremana

- **Erref:** DON-122/053
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:20:05. **Bukatu:** 01:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Baserritarrekin eta arrain saltzaileekin zuten harremana. Igeldotik ekartzen zieten esnea, etxera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com